

BOTOA EMATEKO ESKUBIDEA DUZU

2023ko maiatzaren 28an udal hauteskundeak egingo dira. **18 urte baino gehiago badituzu**, zure botoa funtsezkoa da; izan ere, hauteskunde hauetan erabakitzen da zein pertsonak osatuko dituzten udalak hurrengo lau urteetan.

Hautatutako pertsonak erabakiak hartuko dituzte gure ongizatea eta bizi-kalitatea bermatzeko politika publiko garrantzitsuak garatzeko hainbat arlotan: zerbitzu publikoak, gizarte-zerbitzuak, berdintasuna, immigrazioaren arloko gizarteratzea, garapenerako lankidetzeta eta gazteria.



**Izena eman Atzerriko Egoiliarren
Hautesle Erroldan (AEHE)**

BOTOA EMATEKO ESKUBIDEA DUZU



EUROPAR BATASUNeko HERRIALDEETAKO herritarrak (Suitza eta Liechtenstein barne)

Botoa aurretik eman baduzu, ez duzu ezer egin behar, hautesle-eroldan agertzen baitira.

INOIZ BOZKATU EZ BADUZU eta botoa eman nahi baduzu, **ezinbestekoa** da hautesle-eroldan izena ematea 2023ko urtarrilaren 30a baino lehen, eta horretarako beharrezkoa da:

- Ohiko bizilekua duen udalerrian errolatuta egotea
- Udal hauteskundeetan botoa emateko borondatea adierazi nahi baduzu, Internet bidez egin dezakezu <https://sede.ine.gob.es>, zure egoitza udalean, web orri horretan eskura dagoen adierazpen formalaren inprimakia betez, edo posta arruntez, KEBek (Hautesle Erroldaren Bulegoak) jasotako gutunari erantzuna bidaliz.

BOTOA EMATEKO ESKUBIDEA DUZU



EUOPAR BATASUNETIK KANPOKO HERRIALDEETAKO herritarrak

(Bolivia, Cabo Verde, Txile, Kolonia, Korea, Ekuador, Islandia, Norvegia, Zelanda Berria, Paraguai, Peru, Erresuma Batua edo Trinidad eta Tobago)

Herrialde horietako herritarra bazara botoa emateko eskubidea erabili ahal izateko, hauteskunde-prozesu bakoitzean botoa emateko asmoa duzula adierazi behar duzu, hau da, ez da mantentzen aurreko prozesuen errolda.

Beraz, **ezinbestekoa** da hautesle-erroldan izena ematea 2023ko abenduaren 1etik urtarrilaren 15era arte, eta horretarako honako hauek behar dituzu:

- Ohiko bizilekua duen udalerrian erroldatuta egotea
- Espainian bizitzeko baimena indarrean izatea
- Espainian legez 5 urtez bizi izana (3 urte Norvegiaren eta Erresuma Batuen kasuan).

HEBek (Hauteskunde Erroldaren Bulegoa), baldintza horiek betetzen badituzu, komunikazio bat bidaliko dizu boto-asmoaren adierazpenaren izapidearen berri emateko, bai eta eskaera-inprimaki bat ere. Bertan azalduko dizu nola aurkeztu (posta arruntez edo bide telematikoz).

Hauteskunde Erroldaren Bulegoaren gutuna jaso ez baduzu, izena eman dezakezu:

- Telematikoki, <https://sede.ine.gob.es> helbidera sartuta (ziurtagiri digitala beharko duzu).
- Bizi zaren udalerriko udalean.